


noaua

"SOLDADUSKATIK ETORRI ETA GAUR ARTE ARITU NAIZ LANEAN"

Joxe Leon Arriagak erretiroa hartuko du hilaren amaieran / 12-13



ARGAZKIA: NOAUA




NOAUA

Aste honetan zabaldu da Errigoraren saskiak eskatzeko epea / 08



NOAUA

Zumarteko ikastaroetan izena emateko azken egunak / 09



NOAUA

Makina berriekin hornitu dute Oiardo kiroldagiko gimnasioa / 16



NOAUA

Ostiral honetan Sutegin, 'Eukalyptus' antzezlanaren ikusteko aukera / 22



IRTEERA 2025eko martxoan

Noaok gidatutako talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria

G15 GIPUZKOA
HIGIEZINA
ELKARTEA



HIGIEZINA | INMOBILIARIA

5. URTEURRENA!

MILA ESKER ZUEN KONFIDANTZAGATIK!

SALEROSKETA & ALOKAIK

Zugandik GERTU behar duzun GUZTIRAKO

688 739 733 info@g15usurbil.eus

Etxebeste Kalea 15 - USURBIL

2025eko AURREKONTUAK AURKEZTEKO BILERA IREKIAK

URRIAK 29

Aginaga · Eliza Zaharra
*Eliza Zaharra, alagunea,
eta semaforoak*
Kalezar · Pelaiotena
Belmonte kaleko trafikoa

URRIAK 30

Santuenea · Frontoiko lokala
*Auzoko sarreraren berrantolaketa
eta autobus geltokia*
Munalurra · Eguzki

AZAROAK 5

Txokoalde · Txokoargi
Altzonazko zubiaren obra
Atxegalde · Udarregiko jangela

AZAROAK 6


Etxealdia · Potxoenea
*Kale Nagusiko igogailua eta
irisgarritasun plana*

AZAROAK 7

Zubieta · Kaxkape

AZAROAK 12

Kaxkoa · Potxoenea



Bilera guztiak 18:00etan izango dira

Amaitu da asfaltatze kanpaina

Herri-lanak egin dituzte egunotan Atxegaldeko Erdiko kalean. Lanok burutu ahal izateko, kale horretako aparkalekuak husteko deia egin zuen Udalak. Oharrak jarri zituzten Erdiko kaleko atari eta garaje guztietan. Behin lan hauek eginda, aparkalekuen marrak marraztu behar dira, baina "oraindik ez da zehaztu noiz", Udalak zehaztu duenez.

Asteazkenean egin diren lanekin "amaituko da aurtengo asfaltatze kanpaina".



Atxegaldeko Erdiko kalea asfaltu dute aste honetan. Marrak marraztea falta da baina "oraindik ez da zehaztu noiz".

Garbigune mugikorra, Aginagan

Urriaren 24tik aurrera, garbigune mugikorra Aginagan izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Urriaren 31n osteguna, garbigune mugikorra Zubietara eramango dute.

1969ko kinto bazkaria asteburu honetan egingo da

Larunbat honetan eguerdiko 12:30ean batuko dira Atxegaldeko Mahaspildegia elkartean. Hori bai, urriaren 19a baino lehen eman behar zen izena, 50 euroko ordainketa eginez: ES32 3008 0259 154771916121 (Rural Kutxa). Ordainketa egiterakoan izen-abizenak zehaztu behar dira.

1973ko kinto bazkaria, Atxega jauregian

1973ko kinto bazkaria azaroaren 16an ospatuko da, Atxega jauregian.

Izena emateko, bi telefono zenbaki hauek batera deitu behar duzu: 606 647 115 (Mikel) edo 600 648 889 (Marimar).

Izena emateko epea azaroaren 12an bukatuko da.

Asteburu honetan, ordu aldaketa

Urriko azken asteburu honetan ordu aldaketa egitea egokituko da. Igande goizaldeko 3:00etan 2:00ak izango dira. Ordu bete "gehiago" larunbat gauean eta igandetik aurrera, goizago ilunduko du arratsaldeetan. Hurrengo ordu aldaketa 2025eko martxoaren 30ean izango da.

noaua

TOKIKOM

Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkartea
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatorra:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzaleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Imprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



ALAZNE ARRUTI BENGOETXEA

Txakur-umorea

Txakurrek ez lukete salgaiak izan behar. Etxean, ahozahokoaren bitartez hartu izan ditugu txakurkumeak kasu gehienetan. Eta beste kasuren batean, dagoeneko koskortutako txakurren batzuk ere hartu izan ditugu, jabeak euren kargu egin ezin zuelako, eta batez ere, horretarako espazio eta baliabide nahikoa izan dugulako.

Duela gutxi ordea, beste txakurkume bat hartzeko ideia elikatzen hasi ginenez, bila-keta berri bati ekin nion. Lehenik eta behin, animalien babesleketan begiratzen hasi nintzen. Gero, elkarte ezberdinen izenean, adopzioa bideratuta zeuden zenbait albistekin egin nuen topo. Arrazari ez genion erreparatzen, ahal zela, kumea izatea besterik ez genuen bilatzen.

Txikitatik animalia artean bizi izan naizen arren, adopzioaren gaia, nahiko berria da gurean. Ez nekien askorik prozesuaz, baina lehen harremanak egiten hasi nintzen. Hasteko, galdetegi luze samar bat bete behar nuela jakinarazi zidaten. Nire bizi estiloa, txakur bat zaintzearen inguruko iritziak, albaiariaren inguruko galderak, txakurra zehazki non biziko den deskribatzea...

Luzea izan zen, baina ardu-raz erantzun nuen galdera



"Duela gutxi beste txakurkume bat hartzeko ideia elikatzen hasi ginen".

bakoitza, erantzunak koordinatzaileari itzuliaz.

Ustez, hurrengo urratsa elkarrizketa bat hitzartzea zen, presentzialki zein bideoz, elkar ezagutu eta txakurraren bizilekua ezagutzeko helburuarekin. Zain egon ostean, ostera idatzi nien, prozesuaren jarraipena egiteko asmoz. Eta nire harridurarako berehala erantzun zidan. Gainerako kideei erantzunak helarazi

"TXIKITATIK ANIMALIA ARTEAN BIZI IZAN NAIZEN ARREN, ADOPTIOAREN GAIA, NAHIKOA BERRIA DA GUREAN"

ostean, elkarteko estatutuek kanpoan biziko ziren txakurrak adopzioan ematea debekatzen omen zieten.

Nikinozenteki, elkarte zehatz horren irizpidea izango zela pentsatuaz, beste elkarte batengana jo nuen, zuzenean euren irizpide bera ote zuten galdetu nielarik. Etxebizitza handi batean bizi ginelaz azaldu nien, kanpoan lurra eta itxuraz mugatutako lorategia genituen, txakurrak ez genituela etxe barruan izaten. Baina itxuraz kanpo ere, gure ardurapena lasai ibiltzeko eremua ere bazutela azalduaz.

Eta orduantxe bota zidan ederra: "Egia esan ez dugu gustuko animalia kanpoan bizitzea. Etxeko beroa eta maitasuna etxe barruan partekatzea nahi dugu. Gehienek kanpoan amaitzen dute katean lotuta eta hori ez da animalia bat adoptatzea. Hori ez da familiako kide bat gehiago izatea". Beraz, haserrea irentsi eta zakurra pisu barruan bizitzea zaintza apropos baten baliokidea ez dela izaten erantzun nion hortzak estututa, metro eskaseko kaiola barruan kaka artean aurkitzen zen txakurkumearen argazkiari erreparatzen niolarik.

Eskerrak txakur gehienek, gizakiek sortutako txakur-umorea arintzeko gaitasuna duten.

"Goazen kalera", Usurbilgo erdigunean

Asteartero, Usurbilgo herri eta auzoetan paseotxo osasuntsuak egiteko aukera dago. Urriaren 29koa Usurbilgo erdigunean egingo da. 10:30ean batuko dira bertako frontoian. Amaieran, hamai-ketakoa banatu ohi da.

231tik 205era murriztu da langabetu kopurua

Azken hilabeteotako goranzko joera eten eta nabarmen murriztu da langabetu kopurua Usurbilen. 196 langabetu zituen udalerririk honetako maitatzean, 207 ekainean, 212 uztailan eta 231 abuztuan, Estatuak Enplegu Zerbitzuaren arabera. Abuztuan azken hilabeteotako goranzko joera nabarmen handitu ostean, aldaketa hilabetea izan da iraila. Izan ere, joera hori eten eta murrizketa azpimarragarria izan du udalerririk honetako langabetu kopuruak; abuztuan 231 langabetu zituen udalerririk honetako, 26 gutxiago irailean, guztira 205.

Murrizketa hau nabarmena izan da bereziki emakumezkoen artean.

Usurbilen izan den joera aldaketa honetako ere isladak bera izan du eskualdean eta Gipuzkoan.

Kontratazio datuei dagokienean, 183 erregistratu zituen abuztuan, 252 irailean. Ohi bezala, gehienak, aldi baterako, 187 guztira eta gizonen gehiago kontratatu zituen emakumezkoak baino udalerririk honetan.



Unai Gaztelumendiren komiki-tira, TOKIKOMeko hainbat hedabideren eskutik.



Pupu eta Lore hazi egin dira eta emanaldi berrian zeresan handia izango dute. ARGAZKIA: EGIZU GETXO EUSKALDUN ELKARTEA.

Pirritx eta Porrotxek ikuskizun berria aurkeztuko dute abenduaren 1ean

'Ostirala iritsi da!' izeneko ikuskizuna eskainiko dute Oiardo kiroldegian, eguerdiko 11:30ean hasita. Pukup eta Lorek protagonismo berezia izango dute honakoan.

Pirritx, Porrotx eta Marimotsek udazken partean aurkezten dute emanaldi berria. Lehen saioetako bat Usurbilen

izango da eta, beste behin ere, NOAA! eta Usurbilgo Udalen eskutik etorriko dira gure artera.

Joanes Echeveste Sarako aktoreak egingo du Lore pailazoarena

Oraingoz xehetasun gutxi eskaini dituzte. Web orrialdean aurreratu duten sinopsiaren arabera, Pupu eta Lore pailazo txikiak berebiziko garrantzia izango dute emanaldi berrian. Jada ez dira jaioberriak. Hazi egin dira eta orain bi aktorek gorpuztuko dituzte Pirritxen bixkiak. Joanes Echeveste Sarako aktoreak Lore pailazoarena egingo du. Goazen! telesailari esker egin zen ezagun. Pontx izeneko pailazoarekin ere ibili ohi da herriz herri. Lore pailazoarena egingo du Pirritx, Porrotx eta Marimotsen ikuskizun berrian.

Izaskun Forcada, Pupuren azalean

Izaskun Forcada dantzaria zein aktorea jarriko da Pupuren azalean. Forcadak urteak daramatza Oihana Sanchezekin batera pailazoaren ikuskizunetan aktore eta dantzari gisa lanean.

Ostirala iritsi da!

Abenduak 1 igandea

- 11:30 Oiardo kiroldegian.
- Sarrerak: 8 euro usurbilkultura.eus plataforman. Urriaren 31n jarriko dira salgai.
- Sinopsia: "Gaur egun berezia da eskolan. Porrotx, Marimotots, Pupu, Lore eta bertaratu-tako lagunek Txapas irakaslearekin batera, bere azken lane-guna igaroko dute, elkarrekin ikasitakoa ospatuz. Basoa, jolasak, eskulanak, kantuak, irriak eta bihurrikeriak ez dira faltako. Txapasekin beti da ostirala!".
- Antolatzaileak: NOAA! eta Udala.

"SARRERAK URRIAREN 31N IPINIKO DIRA SALGAI USURBILKULTURA. EUS WEB ORRIAN"

Kulturpotea itzuli da Artzabalera

Kulturpotearen ekimenarekin hasi zirela ia bi urte bete diren honetan, edizio berri batekin datoz Artzabalako lagunak. Ostiralean izango da hemendik aurrera, astero, eta pintxopotearen onenaz eta kontzertu zein ekitaldi kulturalak gozatzeko aukera izango da fusio berezi horretan.

Joan zen ostiralean ekin zion edizio berriak zendu berri den Olimpo kubatar eta herritarren omenezko kontzertuarekin. 'Son de Hoy' taldeak

erritmolatinoak eraman zituen Artzabalera eta jendeak dantza egin eta herritarra gogoratzeko aukera aprobetxatu zuen potea eta pintxoa eskuan. Publiko zabala izan zuen ekimenak.

Datozen asteetan ere musika zuzenean gozatzeko aukera izango da denetarikoa estiloen bitartez. Udazkenetan ostiral iluntzetarako planik ez duten horientzat aukera paregabea gerria mugitzeko eta jendarteaz disfrutatzen.



'Son de Hoy' taldea Artzabalgo atarian aritu zen, erritmo latinoak euskal kulturara hurbiltzen.



EHBilduren legebiltzarkide Mikel Otero. Erraustegitik Nafarroara bidalitako libixiatuez galdetu zion alorreko sailburuari.

Erraustegiaren ezohiko jarduna onartu dute

Zubietako erraustegian sortu eta Nafarroako Artaxoako Ecofert konpostatze plantara garraiatutako libixiatuen gaia ahotan hartu zuten urriaren 11ko Eusko Legebiltzarreko kontroleko osoko bilkuran.

Zubietako erraustegitik Artaxoako (Nafarroa) Ecofert konpostatze plantara bidalitako libixiatuei buruz galdetu zion EHBilduren legebiltzarkide Mikel Oterok Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburu Mikel Jauregi Letamendiari urriaren 11ko Eusko Legebiltzarreko kontroleko osoko bilkuran. "Zubietako erraustegiak hainbat arazo izan ditu martxan jarri zenetik, izan suteak, izan Arkaitzerreka kutsatzea, izan sortu behar ez ziren libixiatuen sorrera". Azken hondakin hauei erreparatu nahi izan zien EHBilduk. "Lixibiatu hauen zati esanguratsu bat Nafarroara bidali ziren, bertan arazo nagusiak sortu direlarik. Nafar gobernuak, besteak beste, Jaurlaritzari eskatu dio abia ditzala gertakari hauek zigortzeko ekimenak". Horren inguruko

iritziaz galdetu zion sailburuari.

Gaineratu zionez, "duela hilabete zure legealdiko asmoakazaltzera etorri zinenean, ohararazpen bat egin genizun. Zuk aurrera begiratu nahi duzu normala den bezala, baina ingurumen arloan atzera ere begiratu behar da herentzia konplikatuek daudelako; kutsadura historikoak, lindanoa, amiantoak, edo besteak beste, aurreko gobernuaren partetik

"LIXIBIATUEN ZATI ESANGURATSU BAT NAFARROARA BIDALI ZEN, BERTAN ARAZOAK SORTU DIRELARIK"

MIKEL OTERO, EH BILDU

ez nahikoa, eskasa izan den kontrol jardun bat. Eta Nafarroara modu irregularrean bidalitako libixiatuen kasuak asko du hortik, kontrol eskasetik", adierazi zioten EHBildutik Jauregi sailburuari. Gai honi buruz eztabaidatu beharrik ez zela izango zioen, "erraustegiak ezarritako baldintzak bete eta legeak aplikatu izan balitu". Izan ere, hori hala izan balitz, "ez ginateke arituko Nafarroara libixiatuak

"NAFARROARA IRREGULARKI BIDALITAKO LIXIBIATUEN GAIK ASKO DU KONTROL ESKASETIK"

MIKEL OTERO, EH BILDU

bidaltzeaz eta han arazo potolo bat sortzearen inguruan".

Baimenik ez

Arau-hauste bikoitzaz ohararazi zuen Oterok. "Kontua ez da soilik, ezin zirela Nafarroara bidali, libixiatuak sortzeko ere ez zuela baimenik erraustegiak". Horren haritik, sailburuari zuzenduta adierazi zionez, "Nafarroako Gobernuak eskatu dizu sortzailerari, hau da, Zubietako erraustegiari zigorra jartzea. Baina zuk diozu erantzun parlamentarioetan ez dagoela libixiatu hondakin horiek sortzerakoan arau-hausterik". Horregatik, EHBildutik nabarmendu zuten, "honek erantzun beharreko galderak uzten ditu Jauregi jauna. Zu esaten ari zara erraustegiak libixiatuak sortzeko baimena duela? Ze guk ingurumen baimen bateratua eskuan, ezetz esaten dugu. Baina bigarren galdera bat sortzen da, hau da, sortzerakoan arau-haustek egon edo ez egon, esan dezakezu Nafarroara libixiatuak bidaltzerakoan ez dela egon arau-hausterik? Ze iritzi duzu zuk honekiko?", galdetu zioten EHBildutik Jauregi sailburuari. Sailburuak ukatu ezin zuen gai honetan arau-hausterik egon zenik. "Nafarroako Gobernuak bidalitako informazioa aztertu ondoren, Eusko Jaurlaritzaren ustez, hondakinaren ekoizpenean ez dago inolako arau-hausterik, ez da identifikatu Gipuzkoako Hondakin Kontsultazioaren (GHK) baimeneko betebeharrak hautsi denik". Jaurlaritzako ordezkariak gaineratu zuenez, gai honi buruzko xehetasunak emanak ditu. "Informazio eskari eta idatzitako galdera ezberdinak formulatu eta erantzun dira dagoeneko". Halere, Nafarroako Gobernuarekin biltzeko asmoa agertu zuen. "Bi administrazio ezberdinen lankidetzaren baitan, Nafarroako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren baitan, zuzentzen dudana sai-

la prest agertu dela bilera bat egiteko informazio gehiago emateko edo edozein gai argitzeko Nafarroako Gobernuak beharrezkotzat jotzen badu. Momentuz, ez dugu erantzunik jaso".

"Matxura konpondu gabe"

Bigarren aldiz hitza hartzeko aukera izan zuen EHBilduren ordezkari Mikel Oterok, erraustegiak ezin dituela lixibiatuak sortu eta are gutxiago, konposatze planta batera garraiatu esateko. Aurrez galdetutakoa berriz oroitarazi nahi izan zion sailburuari. "Sortzerakoan ez zegoela arazorik esan duzu. Nik galdetu dizut ea sortzerakoan eta ea bidaltzerakoan, ze hemen kontua da, bidali zirela eta bidali aurretik egiztatu behar zen arriskutsuak ziren edo ez eta hau ez zen egin behar bezala. Eta hondakin arriskutsuak baziren, Jaurlaritzak Nafarroako Gobernuari abisua pasa behar zion eta ez zion pasa", baieztatu zuen. Gaineratu zuenez, ordea, "kontua oraindik are sinpleagoa da. Hondakinak arriskutsuak edo arriskugabeak izan, erraustegiko instalazioetatik lixibiatuak ezin ziren inoiz joan, ongaria sortzen duten planta batera, legeak hala dioelako, Europako ongarien erregelamenduak argi uzten duelako ezin direla hondakin ez solidoak, ez likidoak, ez gaseosoak eraman ongari planta batera, ingurumen eta osasun arrazoiak medio". Horren aurrean, Oteroren esanetan, "hori da arrazoi osoz Nafarroako Gobernuak esaten duena. Hondakin horiek ezin zirela inolaz joan Nafarroara eta horren kontrolaren ardurazuen da", aurpegiratu zion. Horrez gain, "erraustegiaren likidoak zirkuitu itxi batean behar lukete. Beraz, lixibiatuak ezin dira sortu, ezin dira sortu" errepikatu zion. Sortu baziren, "matxura baten" ondorioa izan behar zuela ziurtatu zuen. "Hau, gertatzekotan kontu puntuala, kudeatu beha-



Trantsizio Energetikoko eta Jasangarritasuneko sailburu Mikel Jauregi.

rrekoa eta berehala konpondu beharrekoa da. Baina lixibiatuak ez dira behin sortutakoak. Bi urte egon da erraustegia lixibiatuak sortu eta hara eta hona bidaltzen", EHBildutik oroitarazi zuenez.

Eta garraiatze hau ez da eten. Izan ere, Oteroren esanetan, "dakigun arte Bizkaira bidaltzen jarraitzen du, ezeztatu ez bada horrela. Eta orain ezeztatu hau ere, ez bada horrela. Baimena eman berri diozue lixibiatu horiek botatzen jarraitzeko, hain zuzen ere Loiolako araztegiara eta hortik, Zurriolatik itsasora". Testuinguru horretan, Oterok galdetzen zuenez, "honek esan nahi du, matxura konpondu gabe dagoela eta ingurumen baimen bateratua ez dela betetzen ari". Horregatik, dagokion ardura bere gain hartzera deitu zuen Jaurlaritzako sailburua.

"AIPATUTAKO HONDAKINA, GHK-REN EZOHICO EGOERA BATEN ONDORIOZ SORTU ZEN"

MIKEL JAUREGI, SAILBURUA

"Zure kontrol lanak eskatzen du hori konponaraztea, ingurumen baimena betearaztea. Azken finean, egiten dizugun galdera edo eskaria da ea legea betetzeko asmorik badagoen, ea legea betearazteko asmorik ba ote dagoen. Zubietako erraustegiko arazo larri hauek konpondu gabe jarraitzen utziko duzue edo eskua sartuko duzue behingoz?".

"Ezohiko egoera"

"Aipatutako hondakina, GHK-ren ezohiko egoera baten ondorioz sortuzen eta baimenean ezarritako baldintzak bete beharko ditu", Jauregik berri eman zuenez. Hondakinaren tratamenduen garapenaren eskumena Eusko Jaurlaritzarena dela gaineratu zuen eta "esparru honetan kokatzen da GHK-k duen Zubietako hondakinaren balorizazio ins-

"EZ DA IDENTIFIKATU GHK-RI DAGOKIONEAN, INONGO LEGE HAUSTERIK"

MIKEL JAUREGI, SAILBURUA

talazioaren ingurumen baimen bateratua". Horren baitan, "Jaurlaritzaren eskumena da GHK-k garatzen duen jardura ingurumen araudiarekin bat datorrela baimendu, ikuskatu eta zaintzea. Hori da gure arloa. Gero, Nafarroako gobernuak ditu bere arloak, egin beharrekoak. Hauek guztiak 2022ko Hondakinaren Legeak ekoizle zein kudeatzaileen betebeharrak zehazten ditu. Ondorioz, GHK-ko ingurumen baimen bateratuak baldintza horiek barneratzen ditu". Betebehar horien artean, sailburuak zioenez, "bada bat benetan garrantzitsua, hondakinek baimendutako kudeatzailearen bati ematea. Hondakinaren kudeatzaileak Nafarroako Ecofert-en kasu honetan, materiala onartu ahal izateko protokoloa bete behar du eta materiala modu egokian tratatu behar du".

Horren aurrean, "Nafarroako Gobernuak esaten digu Ecofert-en enpresaren kontratu neurri zigortzaileak abiarazi behar izan dituela, hondakina baimendu gabeko prozedura bitartez tratatu izanagatik. Nafarroako Gobernuaren jakinarazpena jaso ondoren, sailak gaia aztertu du". Azterketa bideratu ondoren, arau-hausterik ez dela egon errepikatu zuen sailburuak. "Ez da identifikatu GHK-ri dagokionez, inongo lege hausterik eta ez da identifikatu baimeneko betebeharrak hautsi denik". Aurrea begira, zioenez, "hondakinaren kudeaketaren eta ingurumenaren zainza erronka amankomuna da eta bide horretan egingo dugu topo".

Eskaera bikoitza

Gai honen harira, Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietak "informazio gardena eta kontrol publikorako bitartekoak" exijitu ditu sare sozialen bidez. Testuinguru honetan, honakoa galdetu du; "ze neurri hartuko ditu Jaurlaritzak eta GHK-k bi urtez luzatu den "ez ohiko" egoerarekin amaitzeko?".



Hiru saski ezberdin daude aukeran.

Errigoraren saskiak eskatzeko epea aste honetan zabaldu da

Nafarroa erdialdeko eta hegoaldeko produktuez osaturiko saskiak errigora.eus bidez eska daitezke edo ekimenarekin bat egin duen NOAUA! Kultur Elkartearen egoitzan bertan.

Urtean bitan izaten da Nafarroa erdialde eta hegoaldeko euskalgintza sostengatu eta tokiko ekoizpena sustatzen laguntzeko aukera; udaberri partean lehenik, kontserba-sortak eta oliba-olio birjina eskuragarri jartzen duen "Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura" kanpainaren bidez eta orain, ostegun honetatik, urriaren 24tik aurrera martxan jarriko duten "Agerreko uzta euskarari puzka" ekimenaren bidez.

Azaroaren 14ra arte hain zuzen, Nafarroa erdialdeko eta hegoaldeko produktuez osaturiko saskiak eskatzeko aukera izango duzue errigora.eus bidez nahiz beste urte batez, ekimenarekin bat egin duen NOAUA! Kultur Elkartearen egoitzan.

Hiru saski aukeran:

- Beltza (55 euro): piperrak, zainzuriak, orburuak, kardua, potxak, borraja, tomateak, teilak, mahats zukua, ardo beltza, ilarrak, patxaran mantekatua.
- Berdea (65 euro): piperrak, zainzuriak, orburuak, txitxirioak, pasta, dilista lehorrak,

ardo-ozpina, tomate frijitua, sagar zukua, konbutxa tea, txokopipitak, teila eko eta harritz ardo beltza.

- Gorria (75 euro): ardo apartsua Rosé, ardo beltza krianza, ardo txuria, patxarana, mantekadak, polboroiak, txokolatezko molineritoak, zainzuriak, turroia, piperrak eta ardi-gazta.

Oharra: saskiarekin batera, 5 euroren truke "Agertuz" kartajokoa eskuratzeko aukera.

Elkartasuna

Gogoan izan, erosketa hauen truke jasotako laguntzaren laurdena bertako euskalgintzara bideratuko dute. "Ekarpen hori ezinbestekoa da zonaldeko ikastolentzat eta AEK-ren euskaltegientzat, baita sare publikoan D eredua sustatzeko dinamikentzat ere. Gainera, Agerraldia mugimenduaren iturburu eta sustengu ere bada; zonaldean euskararen ezagutza eta erabilera bultzatzeko eta bere aldeko jarrerak indartzeko lan egiteko baliabideak eskaintzen dizkio".

Nafartarrak-en zikloa datorren astelehenean abiatuko da

Erakusketa eta jardunaldi eguna iragarri ditu datorren asterako.

Urriak 28-azaroak 2 'Giza habitat ezkutatua' erakusketa:

Ordutegia: astelehenetik-larunbatera, 18:00-20:00.

- Zehaztasunak: "Klima, paisaia eta izaki bizidunekin batera, giza habitataren parte banandu ezin dira: hizkuntza, kultura eta erakundeak. Bizitza nahi duen herriak bere historia kontatu behar du. "Giza habitat ezkutatua" Nabarralderen eskutik sortutako erakusketa da. 14 hormairudi edo paneletan jasota dago Euskal Herriko historia, «bere osotasunean eta testuinguruan jarrita, baina modu erraz eta sintetikoan». Izan ere, horrelako zerbaiten falta sumatzen genuen".

Azaroak 2, larunbata Jardunaldia Sutegin

10:00-13:30 "Gure Lurrean gu nagusi" jardunaldia Sutegin auditoriumean. Hitzaldiak:

- "Konkistatik asimilaziora".
- "Zer nolako prozesu, pauso eta bestelako estrategia eman diren gure herriaren aurka. Horrenbeste mendetako guduaren ondoren, Euskaldunak gero eta gorputz gutxiago dugu. Esate baterako, Guda Karlistak galdu ondoren, euskarak 40 km atzera egin zuen. Pasarte hauetan sakontzeko hitzaldi sorta laburra izango da".
- Hizlariak: Iñaki Idigoras, Koldo Martinez Garate, Maier Anabitarte, Idoia Arrieta, Beñi Agirre, Joxe Manuel Odriozola eta Ane Ablanedo.
- Laguntzaileak: Udala eta Nabarralde Fundazioa.
- Sarrera: doan.

Booktegiren jaialdia larunbat honetan ospatuko da

Euskarazko literatura guztion esku jartzen diharduen Booktegi egitasmoaren jaialdia hartuko du Usurbilek larunbat honetan:

Urriak 26, larunbata

- 10:30 Elkarririk irakurriz (mailegua*): Maddi Ane Txopereña, Goizalde Landabaso eta Ainhoa Urien. Moderatzailea: Maitane Perez.
- 11:30 Poesia itzulera.
- 12:30 Geuretik Sortuak.
- 13:30 Elkarririk irakurriz (Oparia*): Maialen Akizu, Oier Guillan eta Nerea Loiola. Moderatzailea: Maitane Perez.

Sutegin:

- 16:30 Poesia dramatizatua: Udarregi ikastola.
- 17:30 "Hamalau" antzezlan: Mikel Martinez.



Mikel Martinez Sutegin arituko da.

- 18:00 Hitzak aurrekari: Ainhoa Urien, Oihana Iguaran, Iruri Altzerreka.
- 19:00 Kontzertua: Habiak.
- 20:00 Dantzaldia frontoian: Esther Sound Sister DJ.

Antolatzailea: Booktegi. Laguntzaileak: Usurbilgo Udala, Antza, NOAUA! K.E.

Informazio gehiago: booktegi.eus



ixak Arrutik 'Gitarra + 55 urte' ikastaroa eskainiko du.

Zumarte Musika Eskolako ikastaroetan izena emateko garaia

Igande honetan amaituko da ikastaro eskaintza honetan izena emateko epea. Sarean, zumarte.eus web orrialdean osatu behar da matrikula.

Gitarra +55 urte

- Irakaslea: Ixak Arruti.
- Maiztasuna: Astean ordu bat (taldean).
- Eguna: Asteartean, goizeko 10:00etan.
- Prezioa: Matrikula 108 euro eta beste 24 euro gehiago hilabetero.

Ukelelea

- Irakaslea: Nuria Culla.
- Maiztasuna: Astean ordu bat (taldean).
- Eguna: Asteleheneretan, arratsaldeko 18:30ean.
- Prezioa: Matrikula 108 euro eta beste 24 euro gehiago hilabetero.

Musika 0-3 urte

- Irakaslea: Aritz Larrea.
- Maiztasuna: Hamabostean behin ordu bat (taldean).
- Eguna: Ostiral arratsaldean.
- Prezioa: Matrikula 54 euro eta beste 12 euro gehiago hilabetero.

Alboka

- Irakaslea: Teresa Jareño.
- Maiztasuna: Astean 30 minutu (bakarka).
- Eguna: Asteartean (ordua irakaslearekin dostua).
- Prezioa: Matrikula 148 euro eta beste 31 euro gehiago hilabetero.

Dultzaina

- Irakaslea: Mikel Ortiz.
- Maiztasuna: Astean 30 minutu (bakarka).
- Eguna: Ostegunetan (ordua irakaslearekin dostua).
- Prezioa: Matrikula 148 euro eta beste 31 euro gehiago hilabetero.

Matrikulaziorako epea:

- Urriaren 21etik 27ra, zumarte.eus helbidean.

Oharrak: Ikastaro guztiak azaroaren 4tik ekainaren 20ra izango dira. Ordaindu beharreko hileko kuotak 8 izango dira, azarotik ekainera.



noaua.eus/bereziak/ helbidean batu ditugu jai ezberdinetako argazki bildumak.

Jaietako irudi bilduma

Amaitu dira udazkenara arte luzatu diren uda parteko Usurbilgo herri eta auzoetako jaiak. Kalezar, Usurbil, Zubieta, Urdaiaga, Atxegalde, Santuenea

eta Aginaga izan dute geltoki ospakizunok. Leku hauetan guztietan bildutako irudi-bilduma ikusgai duzue noaua.eus atariko “Bereziak” atalean.

Kzgunera datozen ikastaroak

Urriaren 31ra arte arratsalde, 16:00-20:00 artean irekiko dute Usurbilgo KzGunea, azaroaren 4tik aurrera goizez, 9:00-13:00 artean. Hona hemen, bertara datozen ikastaroen berri:

- Azaroak 4-15, 9:00-11:00: “Oinarrizko Interneta. Nabigatzen eta posta elektronikoak bidaltzen ikasi”.
- Azaroak 18-29, 9:00-11:00: “Ofimatika tresnak-LibreOffice”.

Informazio gehiago:

943 023 684
tutor.usurbil@kzgunera.net

Larunbat honetan, kantu-jira


Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak deitutako euskarazko kantugintza plazaratzen duen hileroko hitzordua ate joka dugu. Larunbatean, hilaren 26an irtengo dira, eguerdiko 12:00etan Mikel Laboa plaza-tik abiatuko den kantu-jiran.

Kantu-liburuxka ahaztu gabe

Parte hartu nahi duenak kantu-liburuxka eraman dezala. Gogoan izan, ikastaroko saioak astelehenero izaten dituzte 18:00etan Agerialdeko musika gelan.

Ibai Maritxalarren pintura erakusketa

Urriaren 27ra arte ikusgai izango duzue ostegunetik igandera Sutegiko erakustaretan, ordutegi honetan: ostegun eta ostiralean 18:00-20:00; larunbatean: 11:00-14:00 / 17:00-20:00; igandean 11:00-14:00. Bere olio bilduma ezagutzeko azken asteburua izango duzue honako hau.



Urriaren 27a amaituko da erakusketa.



"Genozidioari stop! Bakea. Justizia. Itxaropena" aldarripean batu ziren.



Astelehenean egin zen elkarretaratzea, Euskal Herriko herri askotan bezalaxe.

Genozidioa geldiaraztea eskatu dute

Gernika-Palestina Herri Ekimenak Euskal Herri osoan deitutako mobilizazioekin bat egin zuen Usurbilgo herriak ere.

Arratsaldeko 19:00ak jotzerako, alarma hotsak hartu zuen udaletxe ataria. Herritarrak biltzen joan ziren, ordu berean, Euskal Herriko beste hainbat udalerrietan egin bezalaxe. Izan ere, plazetatik milaka lagunek palestinar herriaren aurkako genozidioa geraraztea eskatu zuten iragan astelehenean.

Gernika-Palestina Herri Ekimenak deitu zituen elkarretaratze guztiok eta hauekin bat egin zuen Usurbilgo herriak. "Genozidioari stop! Bakea. Justizia. Itxaropena" aldarripean bildu ziren hainbat lagun udaletxe atarian. Mobilizazioaren lehen zatia alarma hotsen artean egin zuten, bigarrena erabateko isiltasunpean.

Palestinar herria pairatzen ari denaz ahots baten kontakizunak osatu zuen deialdiko azken txanpa. "Entzungor egin

dezaket. Zergatik da hain erraza entzungor egitea? Genozidioa milaka kilometrorra ere entzun beharko litzateke".

Palestinar herria pairatzen ari dena, genozidioa ote den auzitan jartzen duenari zuzendua honakoa zioen. "Zelan ez dela genozidioa? Zelan ezetz, errefuxiatu eremuak ari direnean bonbardatzen?".

Etorkizuneko belaunaldiak hartu zituen ahotan, haiek jasoko duten mundua. "Galdetuko dute zelan utzi zuten hori gertatzerik? Zelan utzi genuen? Zelan ari ote gara uzten? Ikasiko al dugu? Zergatik ez dugu honez gero ikasi? Beti da beranduegi eta horrexegatik hau da unea".

Berehalako su-eten eskaera

"Masiboki mobilizatu beharra dugu, indarrak bateratu Euskal Herrian eta mundu osoan; gizarte zibila aktibatu geno-

zidioa geldiarazteko, irtenbide justua aldarrikatzeko eta aldi berean, esperantzari bidea zabaltzeko", adierazi zuten hilabete hasieran gaurko mobilizazioa aurkezteko Gernika-Palestina Herri Ekimenak bildutako eragile sozial, sindikal eta politikoez eginiko agerraldian. Horregatik, herritarrak aurreko astelehenean Euskal Herri osoan deitutako mobilizazioetan parte hartzea deitu zituzten. "Iaz, Donostian egingo den mobilizazio

**"ELKARRIZKETA
ETA NEGOZIAZIOA
DIRA EGOERA
KRUDEL HONEKIN
AMAITZEKO
BITARTEKO
NAGUSIAK"**

handiaren urteurrenean, euskal gizartea urriaren 21ean egingo diren mobilizazioetan parte hartzea deitzen dugu".

Mobilizazio hauen bidez berehalako su-eten aldarrikatu da, israeldarren okupazio koloniala amaitzea exijitzearekin batera. Mendebaldeko herrialdeei Israelekin duten arma eta baliabide militarren salerosketa etetea galdeginda. Palestinar herriaren autodeterminazio eskubidea errespetatu eta aitortzea ere aldarrikatu da, inolako herrialdeen injerentziarik gabe. Elkarrizketa eta negoziazioa dira deitzaileen esanetan, egoera krudel honekin amaitzeko bitarteko nagusiak, bake justu, egonkor eta iraunkorra erdiesteko. Horretarako, oinarrizkotzat jotzen dute nazioarteko komunitatearen parte hartze aktiboa.

Deitzaileen esanetan, "bigurutzeko historiko baten aurrean gara. Une erabakigarria da gizateriarentzat eta justiziazko eta esperantzazko etorkizuna eraikitzeko apustua egin behar dugu. Ezin dugu isildu. Genozidioa stop! Gerrarik ez, euskal gizartea historiaren alde egokian dagoe-lako, bakearen, justiziaren eta gizateariaren alde".

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
eguneko menua · asteburuko menua
oilasko erreak, ogitartekoak, raziok...
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrena 6, Usurbil.

txirriStra
TABERNA
· PLATER KOMBINATUAK · BOKATAK · PINTXOAK
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO



Usurbildar gaztea modu nabarmenean gailendu zen Amasako proban. AIURRI



Maddi Olaetxea podiumaren gailurrean, sari banaketa ekitaldian. ARGAZKIA: AIURRI

Maddi Olaetxea nagusitu zen Amasako Mendi Duatloian

Euskal Herriko duatloi probetan aitzindaria da Amasakoa. Aurreko asteburuan, 120 parte-hartzaile elkartu ziren, inoizko kopururik altuena. Azken egunetako euriteek are ikusgarriago egin zuten mendi lasterketa.

Gizonezkoen txandan, Eneko Gurrutzaga nagusitu zen.

Bizikletako sektorean egin dako lanari esker eskuratu zuen garaipena.

14 minutuko aldea atera zion bigarren sailkatuari

Emakumeen proban, Maddi Olaetxea usurbildarrak (1:47:26) oso garaipen erosoan eskuratu zuen, ia 14 minu-

tutako aldea atera baitzion Nekane Pradera gasteiztarri (2:01:14), hirugarren postuan Ainhoa Marquinez sailkatu zen, erlojua 2:02:20ko denboran geratuz.

Zirkuituko sailkapen orokorrean Nekane Pradera eta Ainhoa Marquinez dira txapelketako lehen sailkatuak.

"Hurrengo astean Aiak hartuko du Euskal Herriko Mendi Duatloieko Zirkuituaren laugarren proba, interes gune bikoitza izango duen zita, bertan banatuko baitira aurtengo Euskal Herriko txapelketako txapelak", aiurri.eus web orrialdean irakurri dugunez.



Ibiltarien joan-etorria agerikoa izan zen kontrol-guneetan.



Ibilbideen Eguneko informazio guneetako bat, Santueneko zubi ondoan.

Tipi-tapa, Buruntzaldeko bide eta parajeetan barrena

Ariketa fisikoa eginez, eskualdeko txokoak ibilian hobekia go ezagutzeko aukera aparta izan zuten urriaren 20an. Izan ere, Buruntzaldeko 16. Ibilbi-

deen Eguna antolatu zuten Andoain, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udalek eragile gehiagorekin lankidetzan. Haiek jarritako kontrol guneek

tako batean, Santuenekoan nabaritu zuten ibiltarien joan-etorria, Usurbildik ondoko udalerrietara baino mugakide diren herrietatik gure

artera gehiago. Seinale eta panelen laguntzaz noiznahi osa daitezkeen bost ibilaldi egiteko aukera izan zuten parte hartzaileek.



Joxe Leon Arriaga, garai bateko lan-tresnekin bere ile-apaindegian.

"Ile-apaintzaile gisa hamalau urterekin hasi nintzen lanean"

JOXE LEON ARRIAGA ILE-APAINZAILA

Urriaren 31n amaituko du, 56 urte luzez ile-apainketa ogibide izan duen ibilbide profesional oparoa. Aurkezpen gutxi behar duen Joxe Leon Arriagarekin bildu da NOAUA!, jubilatzearen honetan.

Zenbat urteetako ibilbideari emango diozu amaiera?

Ni hasi nintzen ile-apaintzaile gisa, 14 urterekin. 56 urte egin ditut.

Ofizio hau non ikasi zenuen?

Donostian hasi nintzen. Lau urtez aritu nintzen bertan, 14-18 urte artean. Gero, Hernaniko ile-apaintzaile batekin kontratatu zidan, Eustakiok. Soldaduskara joan arte egon nintzen berarekin. Irekitzea baneukan ile-apaindegia Usurbilen, baina soldaduskara joan behar nuenez, itxi egin beharke nuen eta ez zen komeni. Soldaduskeren ere zenbat ile moztu ote nuen. Ile-apaintzaile baka-

rra nintzen eta 12 egunetik behin 600 lagunei ilea moztu nien. Itzela izan zen hura.

Handik bueltan ireki zenuen lokala Usurbilen.

Hori da, soldaduskatik etorri eta gaur arte aritu naiz. 25 urte aurreko lokalean eta hemen 23 urte egin ditut.

Txikitatik argi zenuen ofizio honetan jardun nahi zenuela? Gertukoren bat zenuen erreferente?

Zarauzko ile-apaintzaile bat ibili zen hemen, Andres. Nik orduan 11-12 urte izango nituen. Ikaragarri gustuko nuen nola moztu zuten ilea. Harengan fijatu nintzen eta

nik egin nezakeela pentsatu nuen. Halaxe hasi nintzen.

Nola oroitzen duzu orduko Usurbil herri gisa eta komertzialki?

Oso desberdina. Jende gutxiago bizi ginen gainera.

"NI HEMEN LANEAN HASI ETA HOGEI BAT URTERA HASI ZEN JENDEA ORRAZIA ALBORATZEN"

Lokalaren irekierara begira ez zen gaurko sare sozialik. Ahoz ahokoa funtsezkoa izango zen. Ahoz ahokoa bai. Zorte handia izan dut horretan. Bezeroak beraiek izan ziren horretan aritu zirenak. Ez dut sekula lanik falta izan.

Garai bateko lan-tresnak erakusten ari zara. Horretan ere aldaketa nabaria izan da?

Zuritik beltzera igaro gara. Ilea mozteko etengabe eragin behar genion tresna hau genuen, besoa ederki nekatzen zuena. Behetik gora guraizearekin moztu genuen ilea gero. Betiko labana genuen. Soldaduskara joan aurretik oparitu zidan Eustakiok, aldaketa handia izan zen. Makina elektriko alemaniarra, honek zenbat ile moztu duen sinestezina da. Nire eskuartean izan nuen lehenengo ilea mozteko makina elektrikoa izan zen. Garai hartan, argindarra zen etxeetan 220an, dendetan salgai zeuden makina hauek 125ekoak ziren eta horretarako transformagailua behar izaten genuen. Ondo moldatzen ginen. Beste traste bat gehiago, baina tira.

Aurreko lokalera zetozen bezero haiek zer nola zaintzen zuten itxura?

Orain gehiago zaintzen da noski. Ni hemen hasi eta 20 bat urtera hasi zen orrazia alboratzen. Orduan, dena aldatu zen. Orrazia ordura arte patrikan eramaten zuten askok. Orduko gazte belaualdia zen orrazia alboratzen hasi zena. Garai hartan hasi zen lehenbiziko metxen moda. Orduan ilea dena liso-lisoa eramaten behar zen. Metxak kokka ematen zion, hasieran itxusi bezala ematen zuen. Baina gero modan jarri eta normaldu egin zen estilo hau.

Estetika joerak asko aldatu dira urte hauetan guztietan zehar. "Birziklatu" beharra, eguneratu beharra eskatu dizu horrek?

→ Bai. Tinteeekin ibiltzen nintzen metxak egiten. Gero utzi nuen.

Zuen lantokiak betidanik harremantzeko guneak izan dira. Ile-apaintzaileak psikologoak ere bazaretela aipatu ohi da.

Egia galanta da hori. Bai. Entzutea tokatzen da eta baita jendea lasaitu ere. Konfiantzazko guneak dira hauek.

Hamaika bizipen izango dituzu. Hernaniko San Joanak ziren. Ile-apaindegia ixtera gindoa zen. Bat sartu zen erdi mozkortua, bizarra moztera. Lankideak berari bizarra mozteko eskatu zidan. Jarri nintzen xaboia ematen. Aurpegian katxa bat zuen. Guk xaboia ematen dugunean beti behatzarekin marka uzten dugu zerbait badagoela ikusarazteko. Ez zen geldirik egoten, xaboia eman eta ahaztu katxa bistan jartzea. Lehenbiziko labankadan aurpegia garbi utzi genion. Ez zuen sentitu ere egin. Gero odol isuria ezin geratu, nola edo ahala geratu genuen.



Joxe Leon Arriaga, ofizioa duen lantokian. Azken lanegunak ditu honako hauek.

Bizarra mozten bukatutakoan, hala esan zidan, *nik harrapatu dudan mediku onena hi haiz! Anestesiarik gabe ebakuntza onena herorrek egin didak!*

Usurbilen ere izango duzu bizi-penik?

Gizon bat bazen kontu jakitera etortzen zena. Abuztu batean hirutan etorri zen. Lehenbiziko aldiz ilea moztu ostean, bi astea etorri, bastoiarekin atea joz agurtu eta ekarri baino ile gehiago eraman zuela esan zidan. Haiek barre alga-

rak egin genituen. Artista zen gizon hura.

Urteotan harreman handiko bezeroak izango zenituen.

Nik hemen ditut bezeroak, soldaduska ostetik etorri ostetik asko eta asko. 47 urte 48

"ENTZUTEA TOKATZEN DA. KONFIANTZAZKO GUNEAK DIRA HAUEK"

urteko bezeroak eta oraindik hemen dabilta bueltaka, nire moduan.

Bizpahiru belaunaldi pasako zenituen.

Lau belaunaldi ere bai. Badut familia batean lau belaunalditako bezeroak izan ditudanak.

Belaunaldi batetik bestera zer nolako bilakaera nabaritu duzu?

Aitonetik bere semera salto pixka bat bazen, bere semetik hurrengora pixkat gehiago, hortik gazteenera baita. Hirugarren belaunaldian, hor izan zen aldaketa handiena.

Errelebo falta ere bada ezta komertzioetan?

Hala da, egia da. Pena da, baina hala da.

Nola ikusten duzu herriko merkataritzaren egoera ildo horretan?

Ikusten dudana da autonomia oso lepotik helduta dagoela, oso estu. Gehiago estutzen ari dira eta gehiago estutuko dute. Nik ez dut ezagutuko hori baina pixkanaka autonomia desagertuko dela uste dut.

"Ez zaituztet inoiz ahaztuko!"

Jendea agurtzen ari al zaizu?

Elkar ikusiko garela esanez, bostekoak ematen hasiak dira.

Zer ari zara jasotzen?

Urduritasun puntu bat badut. Askok penaz agurtzen naute. *Eta orain zer egin behar dugu?* galdezka datozkit. Beti pertsona batekin ohitu eta gero aldatzea zaila da, baina egin beharrekoa.

Azaroaren 1etik aurrera, zer?

Egunean egunekoa egin. Ez dut kezkarik.

Bizitzako aldaketa handi hau, alde zurretik planifikatzea- ren aldekoa zara?



Joxe Leon Arriaga, lantokia izan duenaren atarian.

Pixka bat bai. Aldatu beharra duzu. Badakizu lanera gehiago ez zarela etorriko baina ez da beste munduko gauza ere. Halere, nik hemen

ezagutu dut jendea jubilatuta eta zerua goitik behera erori zaiona, *eta orain zer egin behar dut?* galdezka eta gaizki moldatzen direnak.

Mendizalea bazara eta horri behintzat utsiko diozu.

Hori seguru. Zorteduna naiz, osasun ona izan dut beti. Bajan behin ere ez naiz egon.

Bajarik ez, baina oporrak bai?

Gutxi! Pirinioetara aste bate eta gustura.

Zer esan nahi zenieke bezeroei?

Oso gustura aritu naizela haiekin. Hemengo jendea oso zintzoa da. Bezeroak beti gogoan izango ditut.

Milesker benetan denei, bihotz-bihotzez. Ez zaituztet inoiz ahaztuko!



Jakoba Errekondoren azalpeni adi, urriaren 20ko bertso-ibilaldian.

"Sagardoa zen guztiaren oinarria"

Sagar eta sagardoaren lurraldean barrena osteratxoa egiteko aukera aparta izan zuten urriaren 20an, Alkartasuna kooperatibak antolatutako bertso-ibilaldian zehar, hiru bidelagun ezagunekin. Izan ere, azalpenak ematen aritu zen Jakoba Errekondo, eta azaldutakoa bertsoan ilustratzen aritu ziren Maialen

Lujanbio eta Andoni Egana bertsolariak. "Sagardoa zen guztiaren oinarria", nabarmendu zuen Errekondok. Denboran atzera egin zuten, historian zehar inguruak izandako bilakaera eta garrantzia azpimarratu zuen. Sagardogintzarekin batera, ontzigintzaren gune estrategikoa izan ziren baita Oria ertzak.



Argazkian, joan den larunbateko bertso-afaria girotu zuten protagonistak.

Ibai-Ondo elkartearen bertsozaleen topagune bilakatu zen

Giro ederrean joan zen larunbat iluntzeko bertso-afaria Ibai-Ondo elkartearen. Auzolanean bideraturiko hitzorduak hiru gonbidatu ezagun izan zituen: Maialen Lujanbio eta bi herrikide bertsolari, Uxue Fernandez eta Unai Muñoa. Gai-emaietan lanetan Onintza Gartzia aritu zen.

40 laguneko kuadrilla
Haiek girotu eta gidatu zuten 40 lagun inguru erakarri zituen afalordua. Gai serioei eta ez hain serioei heldu zieten.
Santuenea Kultur Elkartek eta Ibai-Ondok antolatu zuten bertso-afaria eta ekitaldia burutu ahal izateko Udalaren laguntza jaso zuten.



Sagar dultzeari buruzko tailerra eskaini zuten herrikideak.

Tailerrik gozoenean trebatzen

Jakintza partekatzen herritik herriarentzat. "Sagar dultzea" prestatzen ikasteko trebakuntza saio interesgarri askoa eskaini zuten Mila Pagolak eta Marije Goldarazena herrikideek urriaren 17an Aitzaga elkarrekin, "Sagar eta Sagardo Kultura" zikloaren baitan, Alkartasuna kooperatibak eta Sagardoaren Unibertsitateak

antolatutako hitzorduan. Sagar ezberdinekin eginiko jakiak ikusgai jartzeaz gain, sukaldatzeko erak azaldu zituzten, bertaraturikoen jakinmina asetzearekin batera. Etxeko sukaldeetan pilatutako jakintza partekatu eta dastatu zuten, ostegun euritsu hartan, tailerreko bideratzaileen eta bertaraturikoen artean.



Oskar Alegriarekin solasean Sutegin, "Zinzindurrunkarratz" proiektatu ondoren.

Oroitzapenen bideetan barrena, Oskar Alegriaren eskutik

Bidaia bat marrazten du Oskar Alegriak zuzenduriko "Zinzindurrunkarratz" ikus-entzunezkoak; oroitzapenena, galtearen bide eta bizimoduena; transhumantziarena. Hilaren 18an ikusteko aukera izan zuten, NOAUA! K.E.-ren eskutik, Sutegiko auditoriora joandakoek. Paolo astoaren

Alegriak bere aitoren garai bidean barrena bidaiatzen du, bere arbasoenean, etxean ondo kontserbatua zuten Super 8 kamera batekin. Aipatzekoa film honen sorkuntza taldean herrikide batek parte hartu duela, postproduktzio lanetan hain zuten; Luis Jambrinak.



Bederatzi bilera egingo dituzte datozen asteetan. Lehen bilera datorren astean izango dira. Udal-gobernuak 2023-2027 Legealdiko Plana aurkeztu zueneko da argazkia.

Udal aurrekontu proposamena, plazara

Udazkenean landu ohi da udal aurrekontu proposamena. Asteotan horretan dihardu udal gobernu taldeak. Eskuartean duten egitasmoaren berri eman eta herritarren ekarpenak jasotzeko helburuarekin, hainbat bilera egingo dituzte Usurbilgo txoko ezberdinetan.

2025. urteko aurrekontuetarako proposamena lantzen ari da udal-gobernua, eta horren berri emateko bilera-erronda bat iragarri du. Urriaren 29tik azaroaren 12ra bitartean, bederatzi bilera antolatu ditu.

"Tokian tokiko gaiez hitz egiteko ere baliatuko ditugu saioak, eta bakoitzeko auzotarrentzat ez ezik, herritar guztiarentzat irekiak dira". Erronda honen ondoren, eta okerrik ez bada, udal aurrekontuak

hasieraz onartuko dira azaroko osoko bilkuran.

Tokian tokiko proiektuak aztertuko dira

2025eko aurrekontuez gain, bileretan landuko diren bes-

te gai batzuk ere jakinarazi dituzte. Zenbait gai herri-azoei oso lotuak dira, baina beste batzuk herritar guztiarentzat interesgarriak izan daitezkeela uste du udal-gobernuak. "Beraz, bilera horien izaera irekia" nabarmendu nahi du. "Kale Nagusia eta Etxealdia lotuko dituen igogailua edo Santuenea eta Zubieta lotuko dituen bidegorria horren adibide izan daitezke", udal iturriek aditzera eman dutenez.

"Oposizioko alderdiek ere ekarpenak egiteko tarte izango dute"

2025eko aurrekontuak azaroko osoko bilkuran onartzea da udal-gobernuaren asmoa: hala, abenduan jendaurrean izan, eta 2025 hasieran martxan egoteko moduan egon daitezten. "Herri-azuoetako bilerekin batera, oposizioko alderdiek ere tarte izango dute proposamena aztertu eta ekarpenak egiteko", udal gobernutik argitu nahi izan dutenez.

"TOKIAN TOKIKO GAEZ HITZ EGITEKO ERE BALIATUKO DITUGU SAIO HAUEK"

Bilera irekiak

Urriak 29 asteartea

- Ordua: 18:00etan.
- Aginaga, Eliza Zaharrean.
- Gaiak: Eliza Zaharra, alagunea, semaforoak.

Urriak 29 asteartea

- Ordua: 18:00etan.
- Kalezar, Pelaiokenan.
- Gaia: Belmonte kalearen trafikoa.

Urriak 30 asteazkena

- Ordua: 18:00etan.
- Santuenea, Frontoiko lokalean.
- Gaiak: Auzoko sarreraren berrantolaketa eta autobus geltokia.

Urriak 30 asteazkena

- Ordua: 18:00etan.
- Munalurra. Eguzki.

Azaroak 5 asteartea

- Ordua: 18:00etan.
- Txokoalde, Txokoargin.
- Gaia: Altzonazko zubiaren obra.

Azaroak 5 asteartea

- Ordua: 18:00etan.
- Atxegalde, Udarregiko jangelan.

Azaroak 6 asteazkena

- Ordua: 18:00etan.
- Etxealdia, Potxoenean.
- Gaiak: Igogailua eta irisgarritasun plana.

Azaroak 7 osteguna

- Ordua: 18:00etan.
- Zubieta, Kaxkapen.
- Gaia: Bidegorria.

Azaroak 12 asteartea

- Ordua: 18:00etan.
- Kaxkoa, Potxoenean.

Makina berriak kiroldegiko gimnasioan

Makina berriak jartzearekin batera, espazioa berrantolatu da, kirol motaren arabera. Guztira, 30.000 euroko inbertsioa izan da.

Makina berriak jartzearekin batera, Oiardo kiroldegiko gimnasioko espazioa berrantolatu dute, kirol motaren araberako eremuak sortuz. Guztira, 30.000 euroko inbertsioa egin du udalak.

Udal kirol sailak aditzera eman dutenez, "muskulatura lantzeko makinak dira, batik bat, erosi direnak". Eta laster,

korrika egiteko zinta berri bat eta eliptika berri bat jarriko dituzte; "eskatuta daude dagoeneko".

Lau gune

Espazioa lau multzotan berrantolatu da: indar librea, indar gidatuko makinak, ariketa kardiobaskularrak eta ariketa funtzional eta luzaketen gunea.



Korrika egiteko zinta bat eta eliptika bat falta dira. "Eskatuta daude dagoeneko".



Muskulatura lantzeko makinak dira, batik bat, erosi direnak.



Lau multzotan berrantolatu dute kiroldegiko gimnasioa.

Kalezarko geltoki berriak inauguratu dituzte

N634 errepide ondoko bi geltoki zaharrak kendu dituzte. Lurreldebusako autobusak hartzeko, geltoki berrietan itxaron behar da orain.

Duela bi aste inaugurazio ekitaldi modukoa egin zuten. Azahara Dominguez Foru Aldundiko mugikortasun saileko diputatuaren esanetan, "garraio publiko jasangarri, eroso, irisgarri, lehiakor eta seguru baten bidez bakarrik lortuko dugu gero eta jende gutxiago ibilgailu pribatuaren mende egotea".

Agurtzane Solaberrieta alkatearentzat, "Kalezarko geltoki eta igogailu berriak estrategikoak dira Usurbilentzat. Matiaren Egurtzegi zaintzadun etxebizitzaren auzuneko bizilagunentzat ez ezik, Kalezarko eta Ugartondoko bizilagunentzako onuragarriak izango dira". Era honetan, "garraio publiko erabiltzeko baldintzak eta irisgarritasuna bermatu ditugu", dio alkateak. "Azpiegitura sozial oso garrantzitsuak dira usurbildarrentzat".



Argazkian, Azahara Dominguez Mugikortasuneko foru diputatua, Agurtzane Solaberrieta alkatea eta Gerardo Amunarriz Matiako zuzendari orokorra.



Kapito Harri eta Luzean taldeek igande honetan jokatuko dute finala.

Enrike Abril errebote txapelketa, azken txanpan

Lehen fasea igarota, laugarren postuan amaitu du Zubietak eta ez du finalerdirako txartela eskuratzerik izan.

Kapito Harri eta Txost taldekoek jokatu dute asteburu honetako finalerdia. Irabazlea, Kapito Harri, Luzean taldearekin lehiatuko da txapelketaren final handian. Eguraldiak oztopatzen ez badu behintzat, azken neurketa igande honetan jokatu da, goizeko 10:30etik aurrera Oiartzunen bertan.

61. Enrike Abril errebote txapelketa

Lehen fasea

1. jardunaldia

Atsedena: Kanboarrak.
Irailak 7, 10:30 Oiartzunen: Txost 9-13 Zubietak.
Irailak 15, 10:30 Villabonan: Kapito Harri 1-13 Luzean.

2. jardunaldia

Atsedena: Zubietak.
Irailak 29, 10:30 Villabonan: Kanboarrak 0-0 Kapito Harri.
Urriak 13, 10:30 Villabonan: Luzean 13-2 Txost.

3. jardunaldia

Atsedena: Kapito Harri.

Irailak 22, 10:30 Oiartzunen: Txost 0-0 Kanboarrak.
Irailak 29, 10:30 Zubietan: Zubietak 2-13 Luzean.

4. jardunaldia

Atsedena: Luzean.
Urriak 6, 10:30 Oiartzungo plazan: Kapito Harri 12-13 Txost.
Urriak 13, 10:30 Zubietako plazan: Kanboarrak 0-0 Zubietak.

5. jardunaldia

Atsedena: Txost.
Irailak 22, 10:30 Zubietako plazan: Zubietak 2-13 Kapito Harri.
Urriak 6, 10:30 Villabonako plazan: Luzean 0-0 Kanboarrak.

Sailkapena

1-Luzean: 6.
2-Kapito Harri: 4.
3-Txost: 4.
4-Zubietak: 4.
5-Kanboarrak (RET): 0.

Azken fasea:

Finalaurrekoa
Urriak 19, 10:30 Oiartzungo plazan: Kapito Harri 13-3 Txost.



Zirimarako LH5 eta 6 mailakoak, Orion arraunean.

Eskola Kirolekoak, arraunean

Tarteka, asteburuetan egiten dituzten topaketetako bat duzue ondoko irudian; Eskola Kiroleko Zirimarako LH 5 eta 6 mailakoena. Orion batu ziren urriaren 12an. Azaldu digutenez, "Zarautz Arraun Elkarteari esker, arrau-

naz gozatzeko aukera izan zuten".

Eskerrak helarazi nahi dizkiete hain zuzen, aipatu elkarteko kideei "eskuzabalik haritzeagatik eta haurrei kirol hau probatzeko aukera emateagatik".



Igande honetan goizeko 10:15etik eguerdiko 11:45ak bitartean, trafikoa mozketak egingo dira lasterketa igaroko den bideetan.

Lasarte-Oria Bai! 27. herri krosa

Bugatitik hasita, hipodromo pareatik barrena Zubietak erdigunea zeharkatzen du urtero ekimen honek. Aliriko zubitik Txikierrak jo eta handik berriz Michelinetik barrena Lasarte-Oria barneratzen da berriz.

Bi proba aukeran

Igande goizeko 10:30ean Lasarte-Oria Geltoki kaletik abiatuko den ekimenerako izena hilaren 25a baino lehen

eman beharko da kronoak. com atarian, Lasarte-Oria Manuel Lekuona kultur-etxean urriaren 25era arte 17:00-19:30 artean edo Michelingo frontoian urriaren 26an (11:00-14:00/17:00-19:30) eta urriaren 27an (9:00-10:00).

Bi proba izango dira aukeran: 10 kilometrokoa edo 5 kilometrokoa.

Helduen ondoren, gazte txoen Korrika Festa ospatuko dute 12:00etan hasita.



Amagoia Mujika Telleria, Gabriel Aresti Ipuin Lehiaketaren 41. edizioko sari banaketa egunean. ARGAZKIA: IKORKOTX.

"Urte askoan, buruan ibilitako ideia saltsa baten emaitza da"

AMAGOIA MUJIK TELLERIA KAZETARIA ETA IDAZLEA

Bilboko Udalak antolatutako Gabriel Aresti Ipuin Lehiaketaren 41. edizioan saritu dute Gara egunkariko kazetaria, NOAUA!n ere aritutakoa, "Azazkalak" izeneko lanagatik.

Nola jaso duzu saria?

Poz izugarriarekin eta harri-dura puntu batekin ere. Lehenengo aldia da halako sariketa batera aurkeztu naizena. Lehenengo ipuina da epaimahai baten neurgailuan jarri nuena urte hasieran. Publiko egin aurretik jakinarazi zidatenean sekulako poza sentitu nuen. Izan ere, maitasun handia diot ipuin horri. Urte askotan buruan ibili ditudan ideia saltsa baten emaitza da. Horregatik, sekulako poza eman dit kanpoko begirada batek aitortza hori eman diotenean.

"Azazkalak" izena du zure ipuinak. Epaimahaiaren arabera,

gaiaren gordintasuna islatzen du zure narrazioak.

Espoilerrik egin gabe. Izan ere, bilduma bat egiten dute Gabriel Aresti lehiaketako lan sarituekin. Seguraski hurrengo urte hasieran liburutxo batean egongo da. Ipuina neskato txiki baten ahotsetik kontatua dago. Nik ez diot adin zehatzik jarri baina lokarriak lotzen ikasi du orain-txe. Neskato horren ama amatasun perfektu idealetik kanpoko emakume bat da. Orduan, horrek jendartean badauka epaiketa bat amarekiko baina nik kontaktzen dut umeak nola bizi duen hori. Umeak bizi du hori haurtzaroaren xalotasun eta maitasun

infinidotik. Orduan umeak kontaktzen ditu gauza oso gogorak heldu baten azalean, baina ume horren begirada oso gardena da. Oso ipuin gordina da, nahiz eta une batzuetan ez duen ematen. Zailena niretzako hori izan da, neskato horren azalean, adinean eta begiradan sartzea eta jendartean epaiketa begirada horretatik aldentzen saiatzea, nahiz eta badagoen

"MAITASUN HANDIA DIOT AZAZKALAK IPUINARI!"

ipuin guztian zehar, begirada hori.

Ipuin honetan, idazleak nondik idazten duen aurki dezakegu?

Oso arraroa egin zait idazle bezala aurkeztu nautela. Ogi-bidez kazetaria naiz baina jada baditut liburutxo batzuk idazle bezala. Halere, asko miresten ditut idazle eta kostatzen ari zait idazle bezala aurkeztea edo baimentzea nire buruari titulu hori. Beti gorputzetik idazten dut, emakume gorputzetik eta askotan izan nintzen ume horren gorputzetik. Hau askotan pentsatzen dudana gauza bat da, pertsona guztiak gure gure haurtzaroa eta gero gure haurtzaroaren gainean kiribilean joaten dela eraikitzen pertsona heldu bat; hau da, haurtzarotik loratzen dela gero izango garen heldu hori. Orduan, haurtzaroan ditugun pozak eta minak arrastean eramaten ditugula uste dut helduaroan zehar. Ipuin horren mezua hori da, nola denok garen noizbait izan ginen haur hori barruan.

Idaztetik bizi izan zara, baina ogibidetik haratagoko jarduera da zuretzat idaztea?

Niretzat idaztea beti izan da arnasa hartzea bezala. Nire lanari esker, egunero egiten dudana ariketa bat da erregistro ezberdinetan. Oso umetatik eta nerabezaroan beti idatziz izan dut eta niretzako plazer bat da idaztea.

Sari honen aitortzak motibatzen zaitu bide honetan sakontzera?

Askok galdetu dit egunotan, eta orain zer? Bertigo pixka bat ere ematen du. Idazten ibiltzen garenok buruan beti dugu bueltaka euli bat, ideia bat edo. Motibazioa sekulakoa da. Egia esango dizut, lehenengo aldiz aurkeztu eta halako sariketa baten aitortza jasotzea akuilu bat da aurrera jarraitzeko, baina ez diot inolako presiorik jarri behar nire buruari. Gainerakoan ere bi-

→ zitzak jartzen digu nahiko harri egunerokoa.

Zure idazlanetan, gai sozialak, eguneroko bizimoduari lotutakoak nagusitzen dira. Horren ispilu ere izan da ipuin honen aurretik argitaratu izan dituzun beste hainbat lan, bereziki Bizipoza elkar-tearekin. Unibertso hau ere zurretat ezaguna eta oso hurbilekoa da, ezta?

Egia esan bai, gai sozialen inguruan mugitzen naiz. Lanean ere askotan hala tokatzen zait eta gustatzen zait kalean arnasten diren gaien inguruan idaztea. Uste dut, egunerokoa zailtzen edo errazten edo gauzatzen edo mintzen duten gaiak dira benetan inporta zaizkigunak, tentuz zaindu beharrekoak. Gauza txikien politika zalea naiz, ze gauza txikietatik egiten da handia. Bizipozarekin eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsekin azken urteotan izan dudana harremanagatik ipuinak ere haienztat egin ditut. Oso gertutik tokatu zait ikustea, beti diogun moduan, munduak guztiotzat beharko lukeela baina ez da guztiotzat. Sekulako borroka dugu guztiotzako mundu bat eraikitzeke bide horretan.

Bestelako mundu bat idatziz ere eraikitzea inoiz baino gehiago aldarrikatu beharrekoa da garaioan?

Neure ustez, une honetan kazetaritzak funtsezko egiteko bat dauka. Albiste faltsuen eta sare sozialetan desinformazioa hain erraz eta hain azkar zabaltzen den garaian, uste dut kazetariaren egitekoa aldarrikatu behar dela oso serio. Pentsatzen dut jendarte informatu bat izatea dela masa kritikoa sortzeko lehenbiziko pausoa eta oraintxe, erronka handi-handi baten aurrean gaude kazetariak. Uste dut ezin diogula utzi gure egiteko horri eta batez ere belaunaldi berriei begira, hariak estutu behar ditugula informazio ona, kalitatezkoa, begirada zehatzarekin egindakoa jaso



Amagoia Mujika Telleriaren ibilbidea estuki lotua dago hedabide honi. ARGAZKIA: IKORKOTX.

dezaten eta ez ditzaten izan gure gazteek albiste faltsuak eta eskuin-muturraren mezu guaiak, sare sozialetan hain erraz sartzen direnak.

Kontatzen ari zaren testuinguru horretan, ze leku dute NOAUA! bezalako tokiko euskarazko hedabideek?

Tokiko kazetaritza ezinbestekoa da. Adibidez, sari honekin zorion-agurrak iristen joan zaizkit gradualki. Astelehenean komunikabide handiek eman zuten eta telebistak. Hor jaso nuen zaparrada bat. Baina gero, NOAUA!n atera zenean beste zaparrada handi bat, gero Hernaniko Kronikan agertu zenean beste zaparrada handi bat. Orduan, konturatu naiz jende askorentzat munduaz informatzeko tokia bere herriko aldizkaria dela. Ondorioz, ezinbestekoa da tokiko hedabideek egiten duten lana. Batez ere jendeak bere sentitzen dituelako, herriarekiko loturak egiteko hari bat

"EZINBESTEKOA DA TOKIKO HEDABIDEK EGINDAKO LANA"

delako tokiko kazetaritza, euskaraz irakurtzeko bide bat delako eta beti pentsatu dut tokiko kazetaritza oso garrantzitsua dela, eta bizi ditugun globalizazio garai ero hauetan are garrantzitsuagoa. Nik uste nonbaiteko sentitzea baino sentimendu indartsuagorik, borroka leku indartsuagorik ez dagoela.

Kazetaritza ibilbidea NOAUA!n hasi zenuen. Nola oroitzen duzu hastapen hura?

NOAUA! maitasun handiz gogoratzen dut, batez ere hor topatu nuen lagun koadrilagatik. Horrez gain, NOAUA!-ren hasiera samarrean ibili ginen. Herrian ze ilusio eta mugimendu sortu zuen, hori ere bereziki gogoan daukat.

Zure sorkuntza lanak jendartearekin partekatzeke lehen zubia izan zen NOAUA!?

Nire lehenbiziko idazteko tokia NOAUA! izan zen. Oso oroitzapen onak ditut.

"LEHENBIZI IDAZTEKO IZANDAKO TOKIA NOAUA! IZAN ZEN"

NOAUA!n hasi ginen kazetaritza ikasten ari ginen herriko gaztetxo batzuk, Agurtzane Solaberrieta alkatea eta biok oso gertu aritu ginen. Hor egin genituen gure lehenengo gupasak idazten. Gu NOAUA!n sartu ginenean, gure aurretik kazetaritza ikasten edo ikasi zuten herriko lagunak zeuden erakutsi zigutenak bidea. Eskola handi bat izan zen niretzat NOAUA! zentzu horretan ere.

Orri txuri bat izango bazenu aurrean, zeri buruz idatzi nahiko zenuke?

Orri txuriaren sentsazio hori ia astero dut. Orduan, hurrengo astean bertan zeri buruz idatziko dudana argi daukat, hor dago eulia nik diodan bezala. Tamalez, indarkeria sexistari buruz izango dela uste dut. Askotan idazten dut emakumei buruz, gertuko eta gure aurreko emakumeak inspiratzaileak iruditzen zaizkit. Sintomatikoa iruditzen zait idazten dudanean gure amonen belaunaldiaz edo gaur egungo gure alaben belaunaldiaz nola dagoen hari bat, indarkeriazkoa, lotzen gaituena denok soka berdinean. Gustatuko litzaidake hori hausteko bidea topatuko bagenu.

"Edozein adineko pertsonak du ipuin bat kontatzeko gaitasuna"

Ixabel Agirresarobek tailer modukoa eskainiko du urriaren 30ean Sutegi udal liburutegiko txikien txokoan. Aldez aurretik eman behar da izena, plaza kopurua mugatua izango baita.

"Konta ditzagun ipuinak". Erre-gu baten itxura du saioaren izenburuak. Nola definituko zenuke?

Ixabel Agirresarobe: Gurasoei zuzendutako keinu bat ere izan daiteke. Dena den, izenburu horrekin adierazi nahi dudana da edozein adineko pertsonak duela ipuin bat kontatzeko gaitasuna. Kontatu egin behar dira gauzak eta urriaren 30ekoa horretarako gonbidapen bat da. Pasa dezagun une bat elkarrekin, ipuinak kontatzen. Ahozkotasunaz gozatzeko modu gustagarri bat izango da.

Partehartzea sustatzen duen saio bat izango da hortaz.

Nik nire kontaketa egiteko asmoa dut eta horrek eredu

gisa balio badie, bestelako materiala eskainiko diet istorioak sortu eta kontatzeko.

Urriaren 30eko kontakizunera hurbiltzen direnei irizpide batzuk emango dizkiezu?

Bai, tresnak simple batzuk. Tailer moduko bat izango da. Nik eskainiko dudana material horrek adibidez, piztu dezake iraganean gertatutako zerbait kontatzeko gogoia. Norbaiti kontatzeko gogo hori pizten bazaio, denon artean konpartitzeko aukera izango du.

Udal liburutegian, txikien txokoan elkartzeko dira. Gaztetxoak heldu baten konpainian joan beharko du, ezta?



5 urtetik gorako haurrei zuzendua dago saioa.

Familia giroko saio bat izango da. Harremana izan daiteke haurra eta bere guraso baten artekoa, edo haurra eta bere arduradunaren artekoa.

Beste zerbait gehitu nahiko al zenuke?

Hizkuntzarekin gozatzeko modu bat bultzatu nahi dut. Ahozkotasunari lotutako kontuak nabarmendu, ahaztuta ditugun espresio horiek gogora ekarri,...

"Konta ditzagun ipuinak" kontaketa saioa

Urriak 30, asteazkena

- 18:00etan, udal liburutegian.
- Iraupena: ordubate inguru.
- Ixabel Agirresaroberen eskutik.
- 5 urtetik gorako haurrei eta haien guraso edota zaintzaileei zuzendua.
- Aurretik eman behar da izena udal liburutegian.

Asier Azpiroz Iztuetaren final laurdeneko saioa

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final laurdeneko saioa jokatu du zubietarrak larunbat honetan, urriaren 26an, arratsaldeko 17:00etan hasita Azkoitiko Baztartzo antzokian. Ane Labaka Mayo, Eli Pagola Apezetxea, Maialen

Akizu Bidegain, Oier Etxeberria Zubimendi eta Unai Mendizabal Jauregi bertsolariak izango ditu lehiakide.

Lerro hauek idazterakoan, oraindik baziren sarrerak eskuragarri bertsosarrerak.eus atarian.



Azpeitiko final-zortzirenean eskuratu zuen larunbat honetarako txartela.

 943 361182
EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL


ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA
www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

·EGUNEKO MENUA
·KARTA
·RAZIOAK
·HANBURGESAK
·BOKATAK


Zubiaurrenea 8, USURBIL
943 37 00 08

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Andatza tabernako jabea 3 logeladun pisu baten bila dabil 627 841 927

San Esteban kalean 31m² lokal bat alokairuan. Bulego edo kontsulta bezala erabiltzeko egokia. 655735715.

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoa da: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

Oztopo arkitektonikorik gabeko etxebizitza txiki baten bila gabiltza. 627184674

Lursail ez urbanizagarri baten bila nabil. 617 771 303.

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Seat Arona Style salgai, 2 urte, 10.000km. Beti garajejan egon da. 620098748

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA:IKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Garaje itxia salgai herri serreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

Afiziozko egur lanetan aritzeko garaje edo lokal baten bila nabil Usurbilen. 722 248 869.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Andatza tabernan sukaldari bila gabiltza: 627 841 927

Pertsona bat bilatzen dut, DBHko ikasle bati egunero klase partikularak emateko. 647742588

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Saizarren zerbitzaria behar da, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 649 844 727.

Aginaga sagardotegian txotx garaian larunbat eguerditan zerbitzaria behar da. 943 366 710.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Etxeko lanak / zaintza lanak egiteko prest dagoen neska bat naiz. Goizez (9:00-14:00) zein arratsaldez (16:00-21:00) aritzeko prest. Harremanetarako: 609647728

Pertsona helduak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo interna moduan. 628 459 625

Pertsona helduak zaintzen, garbiketarako egiten izan elkarte zein etxebizitza partikularretan, lan bila nabil. Esperientzia daukat. Harremanetarako: 631 654 743.

BESTELAKOAK

Larunbatean giltza batzuk aurkitu nituen Troia beheko karretera eta trenbide artean. Udaltzainetan utzi ditut.

Hemengo aurtengo intxaurrek salgai. Telefono zenbakia: 943 671160.

Ikeako sehaska salgai, koltxoirik ez dauka (50 euro). Koltxo eta ohe-jantziekin osatutako sehaska txikia (20 euro). Hamaka bere kaxa eta guzti (50 euro). Uppababy ahulkia salgai (100 euro). Xehetasun gehiagorako: 652 765 583.

GUARDIAKO FARMAZIAK

EGUNEZ

Osteguna, 24	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Ostirala, 25	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Larunbata, 26	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte / 943 36 17 74
Igandea, 27	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte / 943 36 17 74
Astelehena, 28	KNIESE JAUREGUI, LEIRE San Francisco, 1. Lasarte-Oria / 943 36 65 67
Astearte, 29	GANDARIAS-URIBE: Iñigo Loiola 9, Lasarte / 943 01 95 21
Asteazkena, 30	DE ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Osteguna, 31	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte / 943 36 17 74
Ostirala, 01	DE MIGUEL BARCO Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Larunbata, 02	DE MIGUEL BARCO Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Igandea, 03	DE MIGUEL BARCO Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51

GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

SABORIDO RODRIGUEZ, MIREN: Plaza Mañe I I Flaquer, 6 Hernani 943 57 64 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

Pilota partidak

Urriak 25, ostirala

17:45 Usurbilen:

Infantil 3. Mailan eskuz banaka:

-Pagazpe (Alkorta)

-Mundarro

Urriak 26, larunbata

10:30 Usurbilen:

Infantilak 1. Mailan eskuz banaka:

-Pagazpe (Alejo E.)

-Arrasate

-Pagazpe (Alejo M.)

-Behar Zana

Eskubaloia Oiardon

Urriak 26, larunbata

- 18:00 Senior mutilak:

-Saizar Usurbil KE

-Saieko Grupo SEYPREL

Boleibola Oiardon

Urriak 26, larunbata

- 10:00 Infantilak:

Usurbil-Hernani

- 12:15 Kadeteak:

Usurbil-Hernani

Futbol partidak

Urriak 26 larunbata, Haranen

- 15:30 Emakumezkoen gorengo maila:

Usurbil FT-Mondragon C.F.

- 17:45 Gizonezko erregionalak:

Usurbil FT "B"-Intxurre K.K.E.

Urriak 27 igandea, Haranen

- 10:00 Infantil mutilak:

Usurbil FT B-Mundarro FKE

- 12:00 Gizonezkoen

Gorengo Maila:

Usurbil FT-Sanpedrotarra F.E.

HILDAKOAK



Juan Verdascó Hernández
Urriaren 19an hil zen, 87 urterekin.

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak:

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Bulegoa

Etor zaitez gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTIRALA 25

USURBIL "Eukalyptus" antzezlanaren Sutegin

Aktoreak: Jon Ander Urresti eta Beñat Urrutia. Sarrera: 3 eurotan usurbilkultura.eus plataforman.
19:00 Sutegin.

USURBIL Sarearen mobilizazioa

20:00 Mikel Laboa plazan.

LARUNBATA 26

USURBIL Booktegi jaialdia Egitaraua, 8. orrialdean.

USURBIL Kantu-jira

12:00etan Mikel Laboa plazan.


IGANDEA 27

USURBIL Ordu aldaketa

Goizeko 3:00etan 2:00ak izango dira.

ZUBIETA Lasarte-Oria Bai! krosa Zubietatik barrena

Bugatitiek hasita, hipodromo pareatik barrena Zubieta erdigunea zeharkatuko du. Aliriko zubitik Txikierrera joko du gero eta handik berriz Michelinetik barrena Lasarte-Orian barneratuko da.
10:30-11:45. Abiapuntua/helmuga: Lasarte-Oriako Geltoki kalea.



Ostiral honetan, arratsaldeko 19:00etan hasiko da antzezlanaren Sutegin.

"Eukalyptus" antzezlanaren gozatzeko aukera

Euskarazko sorkuntza sustatzeko Udalbiltzak sustaturiko Geuretik Sortuak egitasmoaren baitan ondutako antzezetan bat eskainiko da ostiral honetan, urriaren 25ean, 19:00etan hasita Sutegin auditorioan; "Eukalyptus". Matxalen de Pedrok eta Jon Ander Urrestik zuzendu

eta Urrestik berak Beñat Urrutiarekin antzeztuko dute saio honetan.

Sarrerak sarean eskuragarri

Udalak Udalbiltzarekin batera antolaturiko emanaldiko sarrerak 3 eurotan eskuratu ahalko dira usurbilkultura.eus plataforman.

Izotz sagardoaz trebakuntza saioa

Alkartasuna Kooperatibak eta Sagardoaren Unibertsitateak Udalarekin eta kasu honetan, Aginagako Eliza Zaharra Elkargunearekin batera "Izotz sagardo zer da?" ikastaroa eta dastaketa saioa antolatu dute urriaren 24an. Egoitz Zapiain sagardogileak bideratuko duen hitzordua hain zuzen, 18:00-19:30 artean egingo da Aginagako Eliza Zaharrean bertan. Izena bideotatik eman ahalko da: sagardoa@ni.eus / 630 938 027.

Sagar eta Sagardo Kultura

Urriak 24, osteguna

• 18:00-19:30 "Izotz sagardo zer da?" ikastaroa eta dastaketa Aginagako Eliza Zaharrean, Egoitz Zapiainekin.

Azaroak 14, osteguna

18:00-19:30 "Sagastien bioaniztasuna: sagarrondoek zein bizilagun dituzte?", Iñaki Sanz Azkuerekin.

Azaroak 28, osteguna

• 18:00-20:00 "Bizio sagardogilearekin dastaketa komentatua", Aginagako Eliza Zaharrean.

Izen-ematea:

sagardoa@ni.eus
630 938 027.

Ipuin kontaketa saioa Sutegin

Urriak 30, asteazkena

• 18:00etan udal liburutegian, Ixabel Agirresaroberen eskutik. 5 urtetik gorako haurrei eta haien zain-tzaileei zuzendua.

Otar-Goxo
Elizkariak
Zubiarrenea 2, 943 36 55 81

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA
• komertzial instalazioak • beira bikoitza • segurtasun beirak • ispiluak
• dutxa-itxiturak eta irristailuak • barandak • kristal mota guztiak...
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Parti
Parrus
Jatorria
• bazkariak EGUNERO
• afariak ostirala eta larunbata
© 943 362725 • © 688 690 361

ECCMAX

Entrenamendu pertsonalerako zentro bat gara, zure eguneroko ongizatea hobetzera bideratua.

Indarra modu desberdin, pertsonalizatu eta seguruan aplikatuz, zure burua eta gorputza konektatuko dituzu.

Zuk jartzen dituzu zure helburuak.

info@eccmax.com

659 856 614

C/ Aginaga Auzoa 22, USURBIL Gipuzkoa

urriak 24 - azaroak 14



errigora.eus



Eman bultzada,
indartu euskara

Agerreko uzta euskarari puzka



Ofizioen Gida



URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net

·ERAIKUNTZAK ·OBRAK
·BERRITZE LANAK

ARANKA
BERRIKUNTZAK

·Fatxadak estaldurak ·Estalkien berriztatzeak
·Barruko berrikuntzak ·Gremioen koordinaketa
·Igeltseritza orokorra

Tel: 722 297 867 USURBIL info@arankaberrikuntzak.com

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

Telefona
693 059392

e-posta:
uraitz@uraitz.com

HIPODROMO KALEA BEHEA 10, LASARTE ORIA

ITZIRA
ERAIKUNTZAK

·gremioen koordinaketa
·berritze lanak
·sukaldeak
·komunak

943 530 337
607 119 313

errekatziki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

IRUARKAITZ
ERAIKUNTZAK, S.L

·FATXADAK ETA TEILATUAK
·ERAIKUNTZAK ·BARRUKO BERRIKUNTZAK
·URALITA KENTZEKO ENPRESA BAIMENDUA

iruarkaitz@hotmail.com

630 90 02 79 AGINAGA



Antonio URRUZOLA
AROSZTEGIA

687 845 599 - 943 376 415
Astasuain Industrialdea, 3

USURBIL

J. R. IBARGOEN S.L

ZURGINTZA-SUKALDEAK
ALTZARI BEREZIAK

www.carpinteriaibargoien.aroztgi.net jr.ibargoien@hotmail.com

943 36 14 48 - 676 45 31 76



ARGILAN

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL



antenas Telemar

629 121 355

Elkano kalea 13, HERNANI



APARICIO
DEKORAZIOA ETA
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59 628 883 943
Puntapax, 3 - 3.B 20170 USURBIL



Enrique Alonso
ITURGINTZA
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

Iñaki Iturgintza

BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA
ZORU BERO-EMAILA
ITURGINTZA · ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com

Tfnoa.: 600 024 825

Zuri arrain
iturgintza

TEL: 678 45 31 48 • 943 651 465
zuriarraiturgintza@gmail.com



ANORGA TXIKI S.L
KRISTALDEGIA

·komertzial instalazioak
·beira bikoitza ·segurtasun beirak
·dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



maiz
hornigalak

·TRESNERIA ETA ERREMINTAK
·EGUR ETA AROTZ-LANETARAKO HORNIDURA

suministrosmaiz.com (ONLINE DENDA ERE)
Ugaldea polig. 18, USURBIL 943 36 99 39